



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2021EKO UZTAILAREN 13AN
GOIZEKO 09:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Itziar Basterrika Unanue eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2021/06/08.

Batzarkideek 2021eko ekainaren 8an egindako bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- HAASETAKO S-6 (AGERREAZPI) SEKTOREARI DAGOKION URBANIZAZIO PROIEKTUAREN 3. ALDAKETA HASIERAZ ONARTZEA.

AURREKARIAK

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektorako Urbanizazio Proiektua 2008ko abenduaren 30ean onartu zuen behin betikoz Tokiko Gobernu Batzarrak.

Geroztik, Urbanizazio Proiektuak bi aldaketa izan ditu. Lehena, 2011ko apirilaren 15an onartu zen behin betikoz, eta bigarrena, 2013ko maiatzaren 14an.

Orain berriz, CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L. enpresak, sektoreko jabego gehiengodunak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) sektoreko Urbanizazio Proiektuaren 3. ALDAKETA aurkeztu du.

TXOSTEN TEKNIKOAK

Udal aparejadoreak, Ariadne Etxetxikia Barbero andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektorako Urbanizazio Proiektuaren 3. ALDAKETA aztertu ostean, 2021eko ekainaren 9an ondoko txostena helarazi du:

UDAL ZERBITZUAK
Udal Teknikariak Alkateari
HIRITARTZE OBRAK

S-6 AGERREAZPI URBANIZAZIO PROIEKTUAREN 3. ALDAKETARI TXOSTENA



Usurbilgo Udala

KOKAPENA: S-6 AGERREAZPI, USURBIL
ERAGILEA: S-6 AGERREAZPI SEKOTREAREN JABEGO GEHIENGODUNA
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.03/2021-02
3. ALDAKETA DOKUMENTUAREN AURREKONTUA PEM: 550.775,9EURO

2020ko Abenduan, Usurbilgo S-6, Agerreazpi sektoreko exekuzio proiektuaren 3.aldaketa aurkeztu zuten Lur Paisajistik S.L. eta Endarak. Ondoren proiektua aztertzen da honakoa proposatzeko:

ZOLADURA:

- Udalaren baldosa eredua aurkeztuko da, zoladura jarri aurretik, jarriko den baldosa motari udalak oniritzia eman dezan. Irrisgarritasunari dagokionez, 3. motako ezaugarriak izango ditu.

SANEAMENDUA:

- Hodiak PVC zurruna motatakoak izango dira.
- Gutxieneko diametro minimoa urbanizazio guztian 315 mm izango da.
- Kutxetak hormigoizkoak izango dira.
- Kutxeta tapak: Fundibide etxeakoak eta Usurbilgo armarría eramango dute.
- Kutxeta tapen testua euskaraz izango da: Euri urak - Usurbilgo Udala
Ur zikinak - Usurbilgo Udala

UR SAREA:

- Hodi guztiak burdinurtuzkoak izango dira eta diametroa gutxienez 100mm koa izango da.
- Hodi guztiak burdinurtuzkoak izango dira eta akometidak polietilenoazkoak izango dira, PN 16 kg/cm². Ur-ahoen hartuneak polietilenoazkoak izango dira, DN 45-koak.
- Polietilenoazko hodietan, letoizko piezak erabiliko dira lotunetan eta edozein desbideraketetan.
- Jarriko diren arketa tapa guztiak Fundibide etxeakoak izango dira eta Usurbilgo Udalaren armarría eramango dute. Testua berriz, euskeraz baino ez eta ondokoa izango da: Edateko ura - Usurbilgo Udala
- Ur-ahoen arketa tapak kolore gorrikoak izango dira eta Fundibide etxeakoak izango dira. Usurbilgo Udalaren armarría eramango dute. Testua berriz, euskeraz baino ez eta ondokoa izango da: Ur hartunea – Usurbilgo Udala.
- Sute-ahok: Barcelona eratako errakorra eta 1,5" -ko giltza. Arketen tapak gorriak eta Fundibide etxeakoak izango dira. Usurbilgo Udalaren armarría eramango dute. Testua berriz ondokoa izango da: Ur hartunea - Usurbilgo Udala.
- Suteen kontrako lurpeko kutxetak burdinurtuzkoak izango dira, DN 70-koak .
- Iturria (edateko urarena) elbarrituentzako homologatua izango da.
- Ur sarea herriko sarearekin lotuko da eta Olarriondoko etorkizuneko sarearekin.

ARGIKUNTZA:

- Luminaria guztiak erregistroko arketa eta lur-konexioko pika eramango dute.
- Instalazio guztian, 35 mmko lur konexioko kablea jarriko da eta kutxeta guztietan lur konexioko pikarekin lotuko da.
- Eguzki plakarekin argitzeko dauden luminariak, argiteri publikoarekin ere lotuko



Usurbilgo Udala

- dira, lurrazpiko hodi eta kableen bitartez.
- Zutabeetako lotuneko kaxak, SERTEM CF-101 motakoak izango dira.
- Aginteko koadro elektrikoa SERVITEC DOMO CUADRO izango da. Instalazioak behar duena baino % 30eko erreserba izango du.
- Argiteriako linea bakoitza “diferenciales de rearme automatico” delakoarekin babestuta joango dira.
- Urbanizazioko dagokion argi-azterketa egin beharko da instalazioa jarri aurretik eta udalaren oniritzia jaso beharko du.
- Obra amaitutakoan, instalazio elektrikoaren dokumentazioa emango zaio udalari.
- Kutxeta tapak: Fundibide etxeokak eta Usurbilgo armarrria eramango dute.
- Kutxeta tapen testua: herriko argiak - Usurbilgo Udala

LORAZAINTZA:

Ingurumen teknikariaren txostenak dioen moduan, hormigoizko bidea eta eskailera nagusiak eta erreka artean, mantenerik beharko ez lukeen baso mixto bat bultzatuko lukeen landaketa bat beharko litzateke.

BIDE ORDENAMENDUA:

- Ezinduentzako aparkalekuak aurreikusi beharko lirateke.
- Tartean dauden oinezko pasabideetan S-13 seinale aluminiozkoak jarriko dira eta P-15a resaltoa badago.
- Oinezko pasabideak bi konponenteko pinturarekin eta irrist ez egiteko egokituak margotuko dira.
- Bideko bi karrilak zatitzen duen marra margotuko dira.
- Aparkalekuak pintura bidez zatituko dira.
- Bide ordenamenduko planoak jasoko da exekuzio proiektuan eta Udaltzaingoaren oniritzia jasoko du.
- Udaltzaingoak antolatuko ditu kale ezberdinen norabideak eta aparkalekuen banaketa.

BESTEAK:

- Ez dago zabor bilketarako edukinontzien gunerik errepresentaturik, hauek adierazi beharko dira, gehienbat mahaiak dauden inguruan.

Baldintza hauek jasota, aipatzen da S-6 AGERREAZPIKO PARKEAREN EXEKUZIO PROIEKTUAREN txosten hau **ALDE** dela.

2021eko ekainaren 9an
ARIADNE ETXETXIKIA
Zerbitzuetako Udal aparejadoreak

Udal arkitektoak berriz, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektoreko Urbanizazio Proiektuaren 3. ALDAKETA aztertu ostean, 2021eko ekainaren 28an ondoko txostena eman du:

UA2021_03_04

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkateari



Usurbilgo Udala

HIRITARTZE OBRAK

S-6 AGERREAZPI URBANIZAZIO PROIEKTUAREN 3.ALDAKETARI TXOSTENA

KOKAPENA: S-6 AGERREAZPI, USURBIL

ERAGILEA: S-6 AGERREAZPI SEKOTREAREN JABEGO GEHIENGODUNA

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.03/

3. ALDAKETA DOKUMENTUAREN AURREKONTUA PEM: 550.775,9EURO

AURREKARIAK

- 2021eko urtarrilaren 4an interesatuak S-6 AGERREAZPI SEKTOREKO URBANIZAZIO PROIEKTUA-ren 3. aldaketa aurkeztu du.
- 2021eko martxoaren 31eko URAK-en txostena jaso da.
- 2021eko apirilaren 23an Aholkulari Juridikoak txostena eman du.
- 2021eko apirilaren 23an Zerbitzuetako buruak txostena eman du.
- 2021eko apirilaren 26an Ingurumen teknikariak txostena eman du.
- 2021eko apirilaren 27an udal arkitektoak txostena eman zuen.
- 2021eko maiatzaren 21ean interesatuak S-6 AGERREAZPI SEKTOREKO URBANIZAZIO PROIEKTUA-ren 3. aldaketaren TESTU BATEGINA aurkeztu du.

TXOSTENA

Aurrekarietan azaldu bezala, S-6 Agerreazpi Sektoreko Urbanizazio Proiektuaren 3. aldaketaren Testu Bategina aurkeztu da sektoreko jabego gehiengodunaren eskutik. Aurkeztu den Urbanizazio Proiektuaren 3. Aldaketak jasotzen ditu: memoria, planoak eta aurrekontua. Gutziak teknikari gaituak izenpetuak.

Aurkeztu den dokumentua aztertuta, aurreko txostenean zehaztutako baldintzen inguruak honakoak betetzea faltako litzateke:

- UR AGENTZIAREN TXOSTENA: Ur Agentziaren txostenak proiektuak bete beharko dituen baldintzak finkatzen ditu, horien artean:

"- Asimismo, al ubicarse las obras de urbanización en la zona de policía de cauces de la margen derecha de las regatas Olloki y Aranerreka, se recuerda que en el caso de que se ejecuten las obras el promotor de las obras deberá solicitar la autorización en esta Oficina de la Agencia Vasca del Agua, acompañando del proyecto correspondiente donde se recoja los aspectos precedentes mencionados."

Beraz, proiektuak ezinbestean Ur Agentziaren txostenak zehaztutako baldintzak bete beharko ditu eta behin zuzenduta, Ur Agentzian aurkeztu eta baimena eskatu beharko du eragileak. **S-6 Agerreazpi Sektoreko Urbanizazio Proiektua behin betiko onartua izan dadin, ezinbestekoa izango da Ur Agentziaren baimena.**

- AURREKONTUA: Orain aurkeztu den S-6 Agerreazpi Urbanizazio Proiektuaren 3. aldaketaren Testu Bateginaren **dokumentuak**



Usurbilgo Udala

aurrekontu berria barneratzen du, jatorrizko Urbanizazio Proiektuaren zati bat ordezkatzera datorrena, ez osoa. Hori dela eta, **ordezkatzeko eta baliogabetzen duen aurreko aurrekontuaren zatia zein den zehaztu beharko da, hau da, aurrekontu orokorraren zein zatiri eragiten dion.**

- **AHOLKULARI JURIDIKOAREN TXOSTENETIK:** 2021eko apirilaren 23an emandako txostenetik:

“2.- Horrenbestez, urbanizazio-proiektuaren 3. aldaketak garu egun indarrena dagoen plangintzaren aurka egin EZ dezan, memorian aldaketa hauek egitea proposatzen da:

- 1. puntuan (“*antecedentes y objeto del proyecto*”) gehitzea, proposatzen den aldaketak urbanizazio orokorrari eragiten diola.
- 1. orrialdean, 5. lerroan, hau adierazten den lekuan: “*serán válidos y de aplicación todos los documentos del Proyecto fecha en marzo de 2011 y que no se incluyen en el presente documento con el fin de no duplicar documentación. Estos documentos son...*” **hemen gehitu:** “*los anejos que no se modifican con el presente proyecto*”.

- **BESTEAK:** Ezinbestean bete beharko dira indarrean diren aplikaziozko araudiak (D 68/200, Irisgarritasun legea, Orden VIV/561/2010). Baita, eremuko eraikuntzek CTE-DB-SI5 “*condiciones de aproximación y entorno*” bete dezaten hartu beharreko neurriak. Guztiarekin batera, beste udal teknikariek beren txostenetan esandakoak.

Azkenik, esan beharra dago, txosten honetan aipatzen ez den gabezia edo lege hausterik balu proiektuak, txosten honek ez duela inplizituki onztat ematen eta ezinbestean, obra egikaritzan zuzendu beharko dela.

ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, urbanizazio proiektuaren 3. aldaketa testu bateginarekin ALDEKO txostena ematen zaio, aipatu baldintzapean. Edozein kasutan eta ezinbestean zuzenketak barneratzen dituen dokumentuak izan beharko du jendaurreko erakustaldian jarriko dena.


Hau guzti hau, beste udal teknikariek beren txostenetan esandakoaren kalterik gabe.

Hau da behean izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako besteren kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, sinaduraren datan.
UDAL ARKITEKTOA/ HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO
BURUA
Izta.: Ekhiñe Egiguren

Ingumen eta nekazaritza teknikariak azkenik, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektoreko Urbanizazio Proiektuaren 3. ALDAKETA aztertu ostean, 2021eko ekainaren 29an ondoko txostena eman du:

IT2021_03_02



Usurbilgo Udala

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkateari
HIRITARTZE OBRAK

S-6 AGERREAZPI URBANIZAZIO PROIEKTUAREN 3.ALDAKETARI
TXOSTENA

KOKAPENA:S-6 AGERREAZPI, USURBIL

ERAGILEA: S-6 AGERREAZPI SEKOTREAREN JABEGO GEHIENGODUNA

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.03/2021-02

3. ALDAKETA DOKUMENTUAREN AURREKONTUA PEM: 550.775,9EURO

AURREKARIAK

2021eko urtarrilaren 4an interesatuak S-6 AGERREAZPI SEKTOREKO URBANIZAZIO PROIEKTUA-ren 3. aldaketa aurkeztu du.

2021eko martxoaren 31an URA-ren txostena jaso da.

2021eko maiatzak 21an interesatuak S-6 Agerreazpi sektoreko urbanizazio proiektuaren 3. aldaketaren testu bategina aurkeztu du.


TXOSTENA


2021eko apirilak 26an, hondakinei eta mugikortasunari buruz ezarritako baldintzak betetzen dira.

Seinalizazioari dagokionez, hurrengo gabezia ikusten da.

SEINALIZAZIOA

Seinalizazioari dagokionez, urbanizazioan soilik aureikusten dira zebra bide inguruan. Parkean ere beharrezkoa ikusten da gutxieneko seinalizazioa, hormigoizko bide eta egungo bidearen bidegurutzean. Ibilgailuek parkeko bidea erabiltzea debekatuta dutela adierazteko.






Usurbilgo Udala

Landarediari dagokionez, hurrengo gabezia ikusten da.

LANDAREDIA

Urbanizazioko hormigoizko bidea eta eskailera nagusiak eta erreka artean, ez da landaketarik aurreikusten. Eta ikusita, 2 eremu horien artean legokeen desibela, beharrezkoa ikusten da, mantenurik beharko ez lukeen baso mixto bat bultzatuko lukeen landaketa bat eremu horretan.



Azkenik , Anerrekaren albotik doan bidexkari dagokionez, Ollokiko erreka zeharkatzen duen unean, harrien bitartez igarotzea aurreikusten da, baina irisgarritasun ikuspegitik ez da egokitzat jotzen, eta hortaz beharrezkoa litzateke oinezko pasabide bat aurreikustea.



Usurbilgo Udala



Hortaz, ALDEKO txostena igortzea proposatzen dut, ezinbestean , jendaurreko erakustaldian hurrengo zuzenketak sartuko direlarik.

- Seinalizazioa aurreikusi.
- Baso mixtoaren landaketa aurreikusi.
- Oinezko pasabidea aurreikusi.

Zure ezagupenerako eta bere ondorio egokietarako adierazten zaizuna.

Ibon Goikoetxea Retegi
Ingurumen eta Nekazaritza teknikaria

LEGE TXOSTENA

Udal idazkariak berriz, Garazi Etxeberria San Miguel andereak, ondoko txostena eman du Urbanizazio Proiektuaren izapidetzeari buruz:

LEGE-TXOSTENA

GAIA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi)
Sektoreko Urbanizazio-Proiektuaren 3. ALDAKETA
ESPEDIENTEA ZENBAKIA: HZ.03/2021-0002

1.- AURREKARIAK

CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) sektoreko Urbanizazio Proiektuaren 3. ALDAKETA aurkeztu du.

Txosten honen xedea, ikuspegi juridiko batetik, Urbanizazio Proiektua aztertzea da.



Usurbilgo Udala

2.- DOKUMENTUAREN OSAKETA ETA GAIAREN AZTERKETA

Lurzorua eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30ko 2/2006 Legeak, 194.1. art.k xedatzen duenaren arabera:

“Urbanizatzeko obren xehetasun teknikoak definitzen dituzten obra-proiektuak dira, hain zuzen, **urbanizazio-proiektuak**. Zehaztasunez idatziko dira, hain justu idazleak barik beste teknikari batek zuzenduta egikaritu ahal izateko adinako zehaztasunez”.

Urbanizazio-Proiektuak honako **eduki** hau izan behar du **ekainaren 30ko 2/2006 legearen, 194.3. art.aren** arabera:

“[...] Urbanizatzeko proiektuak formalizatzerakoan, gauza hauek aztertuko dira: obren ezaugarriak deskribatzen dituen txostena, proiektu- eta xehetasun-planoak, neurketak, aurrekontua, eta obra eta zerbitzuen baldintzen agiria; eta, horiez gain, beharrezko diren segurtasun- eta kalitate-azterketak, -programak eta -planak”.

Aurkeztutako dokumentuak printzipioz legediak xedatzen dituen osagarriak ditu.

3.- IZAPIDETZA

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 194.2. eta 196.2., 3. ataletan xedatzen da urbanizatzeko proiektuak **izapidetu eta onartzeko prozedura**:


194.2. art “Jarduketa integratu batean edozein urbanizatzeko lan egiteko, urbanizatzeko proiektua egin beharko da, aldeztatik administrazio-onespena emango zaio eta onespene hori lurraldeko aldirik ofizialean argitaratuko da”.

196.2. art “Urbanizatzeko proiektuei hasierako onespene eman ondoren, jendaurrean jarriko dira 20 egunez, dagokion lurralde historikoko aldirik ofizialean eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaraturik, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan”.

196.3. art “Behin betiko onspene emateko epea bi hilabeteko izango da, hasierako onspene eman ondoren jendaurrean jartzeko epea bukatzen denetik kontatuta. Epe hori ebazpenik eman gabe amaitutakoan, behin betiko onspene administrazioaren isiltasunez eman dela iritziko zaio”.

Beraz, laburbilduz, honako faseetara lotzen da urbanizazio-proiektuaren onspene:

- Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio hasierako onspene ematea [apirilaren 2ko 7/85 legeak 21.1.j) atalean Alkate-Lehendakari ematen dio urbanizazio-proiektuak onartzeko eskumena, baina kontutan izanik 21.3 atalak, beste batzuen artean, eskumen hau eskuordetzea baimentzen duela, ahalmen horren ondorioz Usurbilgo Udalean 2005/1064 Alkatetzaren Dekretu bidez eta aipatu legearen 23.2.b) atalak eta bertako erregelamendu organikoaren 7. artikuluko xedaturikoa betez, TGBren eskuetan utzi zen eskumen hau].
- Hasierako onspene eman ondoren, jendaurrean jarriko da 20 eguneko epean, Gipuzkoako Aldirik Ofizialean eta hedadura gehien duen/dituen



Usurbilgo Udala

egunkarian/etan argitaratuaz, aztertu eta alegazioak egin ditzan nahi duenak.

- Behin betiko onespena ematea Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio (hasierako onespenerako aipatu arrazoiengatik). Bi hilabeteko epea ezartzen da horretarako, behin TGBk hasierako onespena eman ondoren, jendaurrean jartzeko epea bukatzen denetik kontaktzen hasita.
- Behin betiko onespeneraren akordioa GAOn argitaratuko da.

Usurbilen, sinaduraren datan.

Udal Idazkariak

Garazi Etxeberria San Miguel

Udal arkitektoaren, udal aparejadorearen eta udal idazkariaren txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektorari dagokion Urbanizazio Proiektuaren 3. Aldaketa HASIERAZ onartzea udal teknikariek beren txostenetan zehaztutako baldintzekin.

BIGARRENA: Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektorari dagokion Urbanizazio Proiektuaren 3. Aldaketa behin betikoz onartu aurretik, udal teknikariek ezarritako baldintza bete beharko dira dagokion dokumentu egokitua aurkeztuz.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L. enpresari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:45etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.